# BAGA BIGA HIGA

Testu eta irudiak: MARIA GIRÓN

Itzulpena: JON MARTIN-ETXEBESTE

Kartoizko azala 28 x 20 cm 40 or. 17 €

Album irudidunentzako XVII. Compostela Saria

**Baga Biga Higa** (euskara)
ISBN 978-84-9172-399-8. Album irudidunak. Compostela Saria.

**Bim Bam Bum** (galego)
ISBN 978-84-1343-332-5. Álbum ilustrado. Premio Compostela.

**Bim Bam Bum** (castellano)
ISBN 978-84-1343-333-2. Álbum ilustrado. Premio Compostela.

**Bim Bam Bum** (català)
ISBN 978-84-10387-02-7. Àlbum il·lustrat: Premi Compostela.

**Pim Pam Pum** (português)
ISBN 978-989-749-192-4. Álbum ilustrado. Prémio Compostela.

**Bim Bum Bam** (italiano)
ISBN 978-84-1343-331-8. Albo illustrato. Premio Compostela.

*Hondartzarako bira egiten hasi ziren Baga, Biga eta Higa.*

*Halako batean, gelditu eta kox-kox, jo zuten atean.*

*LAAAGAAA!*

*egin zuten oihu denen artean...*

Hondartza egun dibertigarria lagunekin, erritmo, jolas eta umorez betea. «Baga Biga Higa» ipuinean, hiru lagun hondartzara doaz, eta, harako bidean, bainulariak gehitzen zaizkie segizio ozen onomatopeikoa osatuz. Errepikapenean, elkarrizketa laburretan eta pertsonaien pilaketan oinarritutako eskema bati jarraituz, istorioak aurrera egiten du modu arin, dinamiko eta melodikoan. Narrazio-bidearen bihurguneak ustekabe dira eta pizgarri dira irakurketan, umorea eta freskotasuna gehitzen baitizkiote.

Maria Gironek Album Irudidunentzako Nazioarteko XVII. Compostela Saria irabazi zuen adiskidetasuna goratzen duen kontakizun dibertigarri honekin. Askatasuna, mugimendua, ahozkotasuna eta irudimena oinarri dituen haur- jolasaren aldarrikapena egiten du, sedentarismoa, jostailu sofistikatuak eta pantaila elektronikoak oinarri dituen aisialdiaren alternatiba gisara.

Protagonisten artean adin desberdineko neska-mutikoak daude, eta, haiekin batera, gizatiartutako animaliak, oinez edo gurpil gainean mugitzen direnak, naturarekin bat eginik zer jarduera egin daitezkeen erakusten dutenak, olerkiak sortuz gozatzen dutenak, izenak errezitatzean sortzen den jolas fonetikoa eginez, esaterako «Baga Biga Higa» obra alai eta zirraragarria da, berezia eta denboragabea, eguraldi onarekin batera ez ezik, egun grisak ere argitzen dituena. Orrialde bakoitzaren koloreek, ilustrazioen trazu askeak, planoen aniztasunak eta espazioaren antolaerak zinema- estiloko sekuentzia bat osatzen dute, eta, lagun-talde xaloari esker, proposamen polita egiten dute, haurtzaroak bere duen jolasa eta bizitzaren etapa honetan gailendu behar den zoriona nabarmentzen dituena.




- **Galak:** Adiskidetasuna, jolasa, natura eta zoriontasuna haurtzaroan.
- **Gomendatutako adina:** 3 urtetik Aurrera
- **Alderdi azpimarragarriak:** XVII. Compostela Saria haurtzaroa, itsasoa eta uda. Aniztasuna. Hitz jokoak eta joko fonikoak. Poesia fonetikoa. Metaketa. Esperimentazioa. Onomatopeiak. Abangoardia.
- **Egilearen beste liburu batzuk:** «Bost sagutxo» Ilustratzaile ere «Ene Itsugidari, ene Kapitain» (Cuatrogatos Fundazioa 2021 Saria) IBBY 2023 hautaketa «Immigranteak», «Heldu garen guztiak» y «Paraules de caramel».
- **Ilburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/baga-biga-higa-eusk

## Maria Girón

(Barcelona, 1983)

Maria Girónek Arte Ederrak ikasi zituen Bartzelonako Unibertsitatean, eta Bolonian eta Sevillan osatu zuen bere formazioa. Bartzelonara bueltatu zelarik, Llotja Eskolan ilustrazioan egin zuen espezialitatea. Liburu ugari ilustratu ditu eta hizkuntza askotara itzuli izan dira. 2010 urtean Boloniako Haur eta Gazte Liburu Azokak bera aukeratu zuen Gianni Rodariri buruzko erakusketa kolektiboan parte hartzeko. 2017 urtean azoka horretan bertan berriro ere hartu zuen parte Kataluniako kulturaren kariaz egin zen erakusketan.
http://www.mariagiron.com






www.Kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela.com
etxea
soltxate@pamiela.com